

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **93/2018 Mozioa, abenduaren 19koa, Arabako Foru Aldundiaren zentroetan langileen segurtasuna eta adingabeentzako arreta bermatzeari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko abenduaren 19an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

93/2018 Mozioa, abenduaren 19koa, Arabako Foru Aldundiaren zentroetan langileen segurtasuna eta adingabeentzako arreta bermatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bermatu dezala haurra-  
ren interes gorenaren printzipioa, indarrean den araudiaren arabera, eta berregituratu ditzala  
babesgabetasun larriko egoera dauden hamahiru eta hamazortzi urte bitarteko nerabeentzako  
egoitza-baliabideak, aintzat hartuz foru-instituzioa egun egiten ari den azterlanaren ondorioak  
eta uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua betez.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote mantendu dezala adin-  
gabeen zentroetako profesionalen profil sozioedukatiboa, eta indartu dezala langileen kopurua,  
hala behar denetan, bermatuta egon dadin uneoro langileen segurtasuna eta adingabeen arreta  
sozioedukatibo egokia; horretarako, kasu bakoitzaren programazio indibidualizatua egingo da,  
gizartearen eta familian erabat integratzea lortzearren.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 19a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**